

LOREIL!

Loreil, maite aro,
min-sorcski samur;
biotz ondoan kosk
dagikan il, agur!

Igan oro eder,
naigabe itzalik ez:
zugazpe guztiak
osasun gerizez.

Oro bizi barri,
Bedats gazte, lerden;
an, mailluki margo,
urdin-jantzij, emen.

Polito, bidazti,
landan zear abil;
ez, arren, oinpean
ainbat bizi-leka il.

Aizeñok orritzan,
iraulka egoak,
maite miñez dagiz
zinkurin gozoak.

Basoan irea,
sagarrak igoak,
gari saillik ainbat
mototsak agiriz.

Goia dana urrezko
txoriak txintaka;
lizarpeko iturri,
ozen, txirristoska.

Irrikoi zelaiak,
egiak orlegi...
Ernera barrien
oe da mintegi.

Lili eztengeak
leiz alkar mosuka,
uribilli antzo
maiteak abeska.

Usain-kutxan darre
izarren malko, intza;
ta oski zuriz, gain,
dabilkie gentza.

Larra-mao leunak
goi-bide ertzetan,
aurtxoak iduri,
maitekor izketan.

Iduriz, ez dabe
amets urril ori...
Baiña, at nigandik be
gogai biur ori.

Loreil, maite aro,
min-soroski samur;
biotz ondoan kosk
dagikan il, agur!